

IKUSKAPEN-KANPAINAK

Merkatuaren kontrola bi modutara egiten da: alde batetik, autonomia-erkidegoen arteko salaketa, komunikazio edota inhibizioen ondoriozko unean-uneo programatu gabeko ekintzen bitartez. Bestetik, arrazoi desberdinak direla eta (arauen aldaketak, kontsumo altua, erreklamazio kopurua, arazoak aurkitzea, normalkuntzaren beharra, eta abar) kontrol zehatzetarako hautatuak diren produktu, zerbitzu edo ekintza komertzialengan eragina duten programatutako jardueren bitartez.

Oinarri hauei jarraituz 2003an burututako kanpainak hauek dira, kronologikoki sailkatuta. Horren ostean, bakoitzak emandako emaitzak zehaztuko dira.

- Etxetresnak konpontzeko zerbitzuak (Laguntza teknikoko zerbitzuak)
- Etxebizitzaren salmentaren eskaintza, promozioa eta publizitatea
- Esne aberastuen etiketak
- Edari isotonikoak: kirolarientzako edariak
- Ibilgailuak konpontzeko tailerrak
- Igerileku eta hondartzarako gai tolesgarrien etiketak
- Igerileku eta hondartzarako gai puzgarrien segurtasuna
- Etxetresna txikien segurtasuna
- Arrainkien etiketak
- Testuliburuaren prezioak erakustea
- Ardoaren etiketak
- Ordainketaren atzerapena eta kontsumoari kreditua
- Gabonetako girlanden segurtasuna
- Jostailuen segurtasuna

ETXETRESNAK KONPONTZEKO ZERBITZUAK (LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK)

Laguntza teknikoko zerbitzuen kanpaina EAEko hiru lurraldeetan burutu zen otsailean. Kanpainaren helburua zerbitzu hauek dagokien legeekin bat datozen egiaztatzea da.

Kontuan hartzeko arloak honako hauek izan ziren: kontsumitzaileei eskainitako informazioa; publikoari erakusten zaizkion idazkiak, erabiltzaileei eman beharreko dokumentuak ondo betetzea, eta marka jakin bateko zerbitzu ofizial bezala kreditatu gabeko tailerrek markei erreferentziarik ez egitea, kontsumitzaileak okerrera ez bultzatzearen.

Ikuskatutako establezimenduak 47 izan ziren. Honako datu hauek aztertu ziren: kontsumitzaileei eskainitako informazioa, derrigorrezko idazkunak, ordezkoko piezak eta erreklamazio orriak. Tailerren %70ak eskakizun hauekin modu egokian betetzen zuten.

Kontsumitzaileei eskainitako informazioaren inguruko akats errepikatuenak hauek dira: arreta ordutegia ez erakustea, publikoari zuzendutako informazioa kanpotik ikusgarri ez egotea, edo eskaintzen diren bestelako zerbitzuen prezioa ez erakustea.

Derrigorrezko idazkunei dagokienean, tailerretako batzuek ez zituzten bermeen edo kontsumitzaileek aurrekontua eskatzeko duten eskubidearen inguruko idazkunak erakusten. Tailer gehienek erreklamazio orriak zituen.

Bestalde, **kontsumitzaileari ematen zaizkion dokumentuak** ikuskatu ziren. Aztertutako dokumentuen %65a araudiarekin bat zetorren. Aipa daiteke Laguntza Teknikoko Zerbitzuetako batzuek ez zituztela aurrekontuak egiten, nahiz eta erabiltzailearen idatzizko ukorik ez egon.

Kontsumitzaileei ematen zaizkien dokumentuen inguruko akatsik ohikoenak honako datuen ingurukoak izan ziren: konpondutako aparatuaren entrega-data, aurrekontuaren baliozkotasun-epea, aparatua entregatzeko aurreikusitako epea, erabiltzailearen sinadura, Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren arduradunaren sinadura, aparatuaren marka eta modeloa...

Beraz, hauek dira ikuskapen-kanpaina honen emaitzetatik erauzitako ondorioak:

- Laguntza Teknikoko Zerbitzuei dagokien legedia ikuskatutako establezimenduen gehiengoak betetzen du.
- Laguntza Teknikoko Zerbitzuek ematen duten informazioak osoa izan behar du eta establezimendu guztietan egon behar du. Horretarako, akatsak zituzten establezimenduei okerrak zuzentzeko eskatu zitzaizkien legediarekin bat egon daitezten.

ETXEBIZITZEN SALMENTAREN ESKAINTZA, PROMOZIOA ETA PUBLIZITATEA

Kontsumo Zuzendaritzak etxebizitzen salmentaren eskaintza, promozio eta publizitateari buruzko kanpaina hau martxoan eta apirilean burutu zuen.

Kanpaina honen helburua arlo honi dagokion legedia betetzen den jakitea izan zen, batez ere kontsumitzaileari ematen zaion informazioari dagokionean: saltzailearen, etxebizitzaren eta instalazioen datu orokorrak, kontratuaren formalizazioa, etxebizitzaren prezioa eta kontratua sinatzeko orduan eman beharreko dokumentazioa.

Eraikuntza-enpresak, sustatzaileak, agentzia inmobiliarioak eta etxebizitzak eskaintzen eta saltzen dituzten guztiak behartuta daude informazio hori ematera, baita etxebizitza beste erakunde batek sustatzen badu ere. Betiere salmenta era profesionalean egiten denean eta kontsumitzaileei zuzentzen zaienean eskakizun horiek guztiak bete beharko dira.

Ikuskatutako enpresak sektore honetako guztiak izan ziren: eraikuntza-enpresak, sustatzaileak, higiezin jabetzako agentziak eta agentzia inmobiliarioak. Guztira 74 enpresa eraikitzaile ikuskatu ziren, eta 45 agentzia inmobiliario, sustatzaile eta higiezin jabetzako agentzia.

Burututako protokoloetan ikusi zen %56a bat zetorrela araudiarekin. Akatsik ohikoenak honako hauek ziren:

Idatzizko publizitatea egotea:

Eraikuntza fasea edo informazio-foiletoren baliozkotasun-epea ez agertzea.

Saltzaile, etxebizitza eta instalazioen inguruko informazio orokorra:

- Saltzailearen izen soziala edo merkataritza-erregistroan duen inskripzioa ez adieraztea.
- Etxebizitzaren planorik ez ematea, eta etxebizitzaren, bide-trazaduren eta hauen bermearen deskribapenik ez ematea.
- Jabetza-erregistroan egindako inskripzioaren inguruko daturik ez ematea.
- Etxebizitzaren eta zerbitzu osagarrien prezio osoa ez adieraztea.

Kontratuaren formalizazioari buruzko informazioa:

Ikuskatutako enpresen %28an akatsak aurkitu dira kontratua sinatzeko orduan kontsumitzaileei eman beharreko informazioari dagokionean:

- Eskrituratze-gastuak saltzaileari dagozkio legez, eta ez kontsumitzaileari.
- Kontsumitzaileak notarioa aukeratzeko eskubidea du.
- Kontuan egindako ordainketen berme-dokumentua gehitzea.
- Arkitektoaren izena eta helbidea.
- Etxebizitzaren fasea eta entrega-data.
- Kontratazio Baldintza Orokorren inguruko 7/1998 Legearen lehen xedapen gehigarrian ager daitezkeen klausulak.

Prezioari buruzko informazioa:

- Kontsumitzaileak saltzaileak bankuarekin duen maileguan subrogatzeko duen eskubidea ez adieraztea.
- Atzeratutako ordainketen eta interesen kasuan epemuga-data ez adieraztea.
- Etxebizitzaren Jabetza-erregistroaren inskripzioari buruzko datuak ez adieraztea.
- Etxebizitza bakoitzari hipotekaren inguruan dagokion ardura ez zehaztea.

- Etxebizitzaren prezio osoa ez adieraztea, BEZ eta merkatal-agentearen ordaina barne.

Kontratua sinatzeko orduan eman beharreko dokumentazioa:

Enpresen %28ak akatsak aurkezten ditu arlo honetan:

- Lagatzaileak derrigortuta daude jasotako kantitateak gehi legezko interesak itzultzera eraikuntza hasten ez bada edo bukatze-epea luzatzen bada.
- Abalari edo abala egiten duen entitatea adierazten duen aseguru-kontratuari erreferentzia egitea.
- Bankua edo aurrezki kutxaren izena agertu beharko da, baita erosleak aurreratuko duen dirua sartuko den kontuaren zenbakia ere.
- Erosleari Eraikuntza Liburua edo eraikuntzaren akats edo bizioen bermea ez ematea, 38/99 Legeak agintzen duen bezala.

ESNE ABERASTUEN ETIKETAK

2003ko apirilean kontsumorako esne likido aberastuen etiketen inguruko legedia zenbateraino betetzen den egiaztatzeko helburua zuen kanpaina burutu zen. Aztertutako aspektuak jakien etiketen inguruko alde orokorrak izan ziren alde batetik, eta bestetik mota honetako esneentzako derrigorrezkoa den nutrizio-etiketaren ingurukoak.

Hiru lurraldeetako azalera handiak eta supermerkatuak bisitatu ziren, guztira 29 establezimendu ikuskatu zirelarik. Lurraldeetako bakoitzean etiketatuaren ikuskaritza esnearen tratamendu termikoaren inguruan burutu zen: pasteurizatua, esterilizatua eta UHT.

36 esne aberastu ikuskatu ziren: 12 osoak, 11 erdigaingabetu, eta 13 gaingabetu. Honako elementu hauek ikuskatu ziren jakien etiketatuaren eskakizunen inguruan: salmenta izena, osagaien zerrenda, kantitate garbia, daten markatua, produktuaren arduraduna, sortaren eta kontserbatzeko moduaren inguruko adierazpenak, osasun-markatua, etiketatuaren aurkezpena eta kontsumitzaileak okerrera bultza ditzaketen propietate edo esaldiak egotea.

Alde honetan azpimarratu behar da akatsak 4 produktutan aurkitu zirela. Horietatik hiruk esne guztiek amankomunean dituzten propietateak aipatzen zituzten, edo honako hauek ez aipatzeko legea hausten zuten: giza-gaixotasunen prebentzioa edo sendaketa, edo propietate terapeutikoak. Ikuskatutako esneetako bat ez zetorren bat produktuaren arduradunaren inguruko informazioa aurkezteko modua arautzen duen araudiarekin, eta bi osasungarritasun marka aurkezten zituen.

Nutrizio-informazioari dagokionean, honako aspektuak ikuskatu ziren: informazio hori benetan agertzen bazen, eta adierazpenak araudiak agintzen duen forma eta ordenaren arabera egiten ziren.

Produktuetako bakar batek aurkezten zituen elikagaien taldeak ezarritakoa ez den ordenan.

Aurkitutako akatsen inguruko informazioa produktuen arduradunen Autonomia Erkidegoetara bidali zen, hauek ezagut eta konpon zitzaten.

EDARI ISOTONIKOAK: KIROLARIENTZAKO EDARIAK

Kontsumo Zuzendaritzako ikuskaritza zerbitzuak apirilean edari isotonikoen lagin-hartze kanpaina bat burutu zuen. Honen helburua produktu hauen etiketatua eta konposizioa analitikoki egiaztatzea izan zen.

Isotoniko izenarekin saltzen diren produktuetatik 17 aukeratu ziren, horietako guztiak bitaminez gain bestelako sustantziekin aberastuta zeudelarik.

Produktuetatik zazpi emaitza zuzenak aurkeztu zituzten, gainontzekoen etiketatuak akatsak aurkezten zituelarik. Aurkitutako akatsen inguruko informazioa produktuen arduradunen Autonomia Erkidegoetara bidali zen, hauek ezagut eta konpon zitzaten.

IBILGAILUAK KONPONTZEKO TAILERRAK

Ibilgailuak konpontzeko tailerren kontrol eta informaziorako kanpaina 2003ko ekainean egin zen Kontsumo Institutu Nazionalak estatu mailan programatutako Ikuskaritza Kanpainen barnean.

Kanpaina honen helburua tailer hauek dagokien araudiarekin bat datozeela egiaztatzea zen. Zehazki ibilgailuak konpontzeko tailerrek kontsumitzaileei eman beharreko informazioa aztertu zen: tailerren erregistro berezian duen identifikazioa; betetzen duen jarduera; markako tailer ofiziala den; eskaintzen dituen zerbitzuen prezioen inguruko informazioa erabiltzaileentzat ikusgarri dagoen; erakutsi behar diren idazkunak eta euren edukia; faktura, aurrekontu edo frogagirien edukia arauak agindutakoarekin bat datozen; erreklamazio orriak izatea.

Ikuskaritza 122 tailerretan egin zen: 29 Araban, 36 Gipuzkoan eta 57 Bizkaian. Establezimenduen %74a bat zetorren Ibilgailuak konpontzeko tailerrei dagokien araudiarekin. Portzentajea oso antzekoa izan zen hiru lurraldeetan.

Honako ondorio hauek azpimarra ditzakegu:

- Tailerren inguruko informazioa, orokorrean, zuzena zen, eta markakoak ez diren tailerren gutxiengo batek bakarrik erakusten zituen kontsumitzaileak okerrera bultzatzen zituzketen marken irudiak.
- Ikuskatutako tailerren %62ak ematen zuen informazioa zuzena zen. Akatsik ohikoenak honako hauek erakusteko orduan gertatu ziren: lan ordu bakoitzeko prezioa, lanegunetik kanpo egindako lanen prezioa, eguneko egonaldiaren prezioa, prezioetan dagokien zergak barne sartzea, etab.
- Tailerren %78a gordailu-ordeztagiriari dagokion arauarekin bat dator. Akatsik ohikoenak hauek izan ziren: ibilgailuaren kilometroak ez adieraztea, ibilgailuaren entrega-data ez adieraztea, aurrekontua ez adieraztea, tailerrak dagokion erregistroan duen zenbakia ez adieraztea.
- Aurrekontuei dagokienez, tailerren %65a bat zetorren araudiarekin. Aurreko atalean aipatutako akatsez gain, honako hauek ere aurkitu ziren: ustezko entrega-data ez adieraztea, edo aurrekontuaren baliozkotasun-epea ez adieraztea.
- Tailerren gehienek (%98) fakturak era egokian betetzen zituzten.
- Tailerren %90ak erreklamazio-orriak zituen eskuragarri.

IGERILEKU ETA HONDARTZARAKO ARTIKULU TOLESGARRIEN ETIKETAK

Uztailean egindako kanpaina honen helburua artikulu hauek etiketatu, aurkezpen eta publizitatearen inguruan dagokien araudiarekin bat datozela egiaztatzea izan zen. Honetaz gain, kontsumitzaileari eskaintzen zaion informazioa ere ikuskatu zen: erabilera-jarraibideak, bermea eta publikoarentzako salmenta-prezioa.

Ikuskatutako artikuluak lurraldeka banatu zuren: Araban aulki tolesgarriak ikuskatu ziren 10 establezimendutan; Gipuzkoan, etzaulkiak eta hamakak 20 establezimendutan; eta Bizkaian itzalkinak eta kanpinerako mahaiak 20 establezimendutan. Bisitatu ziren establezimenduak "dena ehunean" dendak, deskontu-dendak, bazarrak, burdindegia, eta kirol-dendak.

Azkenik 78 artikulu ikuskatu ziren, lurraldeka honela banatu zirelarik: 10 Araban, 43 Gipuzkoan eta 25 Bizkaian.

Kanpaina honen bidez ondoriozta daiteke ikuskatutako produktuen %63ak etiketan edo atxikitako dokumentuan beharrezko argibide guztiak aurkezten zituela. Akatsik ohikoenen artean hauek aipa ditzakegu:

- Artikulu gehienek etiketa irakurterraza aurkezten zuten ikusgarri, baina ez beti hizkuntza ofizialean. Aurkitutako akatsen artean fabrikatzailearen izena edo helbidea ez agertzea, edo produktuaren izena edo konposizioa ez agertzea izan ziren.
- Erabilera eta mantenu-jarraibideak produktuen %37an agertu ziren, eta segurtasun-aholkuak %32an.
- Berme-dokumentua produktuen %25ean agertu zen bakarrik.

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzak akats hauek komunikazio bidez jakitera eman zien produktuen arduraduna kokatuta dagoen Autonomia Erkidegoei, horrela okerrak zuzen zitzaten.

IGERILEKU ETA HONDARTZARAKO ARTIKULU PUZGARRIEN SEGURTASUNA.

Uztailean igerileku eta hondartzarako artikulu puzgarrien lagin-hartze kanpaina bat burutu zen: flotagailuak, mahukatxoak, etzaulkiak eta koltxonetak. Kanpaina honen helburua artikulu hauek dagokien araudiarekin bat datozela egiaztatzea izan zen, batez ere etiketatuari eta produktuen segurtasunari begira.

Bizkaian 20 produkturen laginak hartu ziren, eta Kalitatearen Kontrolerako eta Ikerketarako Zentrora bidali ziren analisia burutzeko. Azpimarra dezakegu bakarrik produktuen %30a izan zela guztiz egokia.

Produktuen %20ak bere etiketatuan akatsak aurkezten zituen. Akats hauek produktuaren arduraduna kokatzen den Autonomia Erkidegora komunikatu ziren, okerrak zuzen zitzaten.

Produktuen %50ak segurtasun arazoak aurkezten zituen eta beraz alerta-sarean sartu ziren eta merkatutik erretiratu ziren.

ETXETRESNA TXIKIEN SEGURTASUNA

Lagin-hartze kanpaina hau estatu mailan industria-produktuen inguruan egin direnen artean kokatzen da. Honen helburua, hartutako laginen kontrol analitikoaren bidez, artikulua hauek dagokien araudiarekin bat datozen egiaztatzea da, batez ere etiketatu eta segurtasunari begira. Kanpaina hau uztailaren lehenengo hamabostaldian burutu zen.

Ile-lehorgailu eta plantxen 15 lagin hartu ziren, bidaiakoak zein arruntak, Arabako zenbait establezimendutik: "dena ehunera" dendak, bazarrak, burdindegia, etxetresna-dendak, eta azalera handiak.

Laborategiak igorritako emaitzek laginetatik 9 guztiz egokiak zirela adierazi zuten, gainontzeko 6 laginetan zenbait akats aurkitu zirelarik. Akats hauek etiketatuan agertu beharreko adierazpenen edo bermeen ingurukoak ziren.

Kontsumo Zuzendaritzak beharrezko komunikazioak igorri zizkien produktuen arduradunak kokatuta zeuden Autonomia Erkidegoei.

ARRAINKIEN ETIKETAK

Kontsumo Zuzendaritzak kanpaina hau uzailean, abuztuan eta irailean burutu zuen EAEn ontziratuta zein ontziratuta gabe saltzen diren arrainkien etiketak ikuskatzeko.

Kanpaina honen helburua 2002an burututako kanpainen kontsumitzaileari eskaintzen zaion informazioan akatsak aurkeztu zituzten establezimenduak bisitatzea zen, beren etiketak edo kartelak estatu zein Europako araudira egokituz okerrak zuzendu zituztela egiaztatzeko.

Araudiak zera ezartzen du: produktu guztiek derrigorrez etiketa edo dokumentu bat izan behar dutela merkatuan sartzen diren lehenengo alditik, azken kontsumitzailearengana iristen den arte. Kontsumitzaileari eskaintzen zaion arrainkiak etiketa edo kartel bat izan behar du, ikusi eta irakurtzeko moduan kokatuta, honako informazioarekin: harrapaketa-eremua, lorpen-modua, espeziearen salmenta-izena, aurkezpen eta tratamendu-modua, eta salmenta-prezioa.

- **Lehen fasean**, eta Osasun Sailarekin eta Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin elkarlanean, handizkako establezimenduak bisitatu ziren, Autonomia Erkidegoko Handizkarien Merkatuan, Pasaiko Lonjan eta Donostiako kaian ezarritako Lonjakoak, hain zuzen. Ikuskatu ziren 105 produktuetatik, 89k zegokien dokumentua edo etiketa zeramaten.
- **Bigarren fasean**, ontziratuta gabeko arrainkiak saltzen dituzten 107 saltoki ikuskatu ziren, guztira 310 ikuskatu zirelarik. Hauen artean %76a modu egokian zegoen identifikatuta beharrezko kartel edo etiketekin.

Espeziearen salmenta-izena eta salmenta-prezioa produktuen gehiengoan agertzen baziren ere, akatsik ohikoenak harrapaketa-eremua, lorpen-modua eta aurkezpen-moduari dagokienean agertu ziren.

Ontziratutako arrainki freskoen inguruan egindako ikuskapenetatik azpimarra dezakegu produktu guztiek honako informazioa aurkezten zutela: espeziearen salmenta-izena, pisu garbia, pisua neurri-unitateko, prezioa guztira eta kontsumorako gomendatutako epea. Bestalde, harrapaketa-eremuak, lorpen-moduak, eta aurkezpen-moduak ontziratuta gabeko arrainkien kasuan agertzen diren akats berdinak aurkezten dituzte.

Aurreko urtearekin alderatuta, azpimarra daiteke modu egokian etiketatutako produktuen kopurua nabarmenki hazi dela, batez ere harrapaketa-eremuari eta lorpen-moduari dagokionez.

Kontsumo Zuzendaritzak beharrezko espedienteak hasi ditu akatsak erakusten zituzten txikizkako establezimenduek okerrak zuzen ditzaten.

TESTULIBURUEN PREZIOA ERAKUSTEA

Azken urteetan bezala, Kontsumo Zuzendaritzak testuliburuaren salmenta-prezioen inguruko ikuskaritza kanpaina egin zuen iraileko lehen egunetan.

Guztira 30 establezimendu bisitatu ziren:

- Araba: 3 azalera handi eta 3 liburu-denda.
- Gipuzkoa: 4 azalera handi eta 5 liburu-denda.
- Bizkaia: 6 azalera handi eta 9 liburu-denda.

Guztira 82 ikuskapen burutu dira kontsumitzaileei honako arloetan ematen zaien informazioa egiaztatzearen:

- Liburuaren azken prezioa adieraztea.
- Azken prezioan BEZ eta gehikuntza zein beherapenen zenbatekoa barne egotea.
- Saltokian salmenta-prezioa adierazten duten katalogoa edo prezioen zerrenda egotea.
- Kostaprezio eskaintza: eskainitako azken prezioa ohiko prezioaren aurka adierazita egotea, eta azken prezioa kostaprezio moduan agertzea albaranean edo fakturan.
- Publikoarentzako Salmenta-Prezioa ken portzentaje jakin bateko beherapena: produktuaren prezioa eta beherapenaren portzentajea argi adierazten dira, eta PSPari portzentaje horretako beherapena egin eta geroko emaitza azken prezioaren berdina izatea.
- Saltzen dena publizitate-foiletoan adierazten denarekin bat etortzea.

Aurkitutako akatsak lau aspekturi dagozkie:

- Azken prezioa modu egokian ez adieraztea.
- Azken prezioak BEZ barne ez izatea.
- Azken prezioak beherapenen zenbatekoa barne ez izatea.
- PSP ken portzentaje jakin bateko beherapeneko eskaintza dagoenean, azken prezioa argi ez adieraztea.

Hauetako lurralde bakoitzeko emaitzak:

- Araba: establezimendu bakar batek aurkeztu zituen akatsak, salmentarako liburuaren ez baitzen adierazten azken salmenta-prezioa.
- Gipuzkoa: establezimendu batek akats bat aurkeztu zuen, ez baitzuen azken salmenta-prezioa modu egokian adierazten ohiko prezioaren aurka. Beste establezimendu batek azken salmenta-prezioetan ez zuen eskainitako gehikuntza zein beherapenen zenbatekoa adierazten.
- Bizkaia: establezimendu batean ez zen azken salmenta-prezioa adierazten, BEZ ez zegoen barne eta azken salmenta-prezioan ez zen beherapenaren zenbatekoa adierazten.

Kontsumo Zuzendaritzak okerrak zuzentzeko eskatu ziren establezimenduei, eta zegozkien zigor-espedienteak ireki zituen.

ARDOAREN ETIKETAK

Irailean eta urrian Kontsumo zuzendaritzak Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait eskualdetako taberna eta kafetegietan saltzen den etiketatu gabeko ardoaren salmenta kontrolatzeko kanpaina burutu zuen.

Araudiak agintzen du 60 litro edo gutxiagoko ontzietan salmentara jartzen den edozein ardok araudiak ezartzen duen moduan etiketatua egon behar duela.

Bi lurraldeetan guztira 95 ikuskatze egin ziren, 27 Gipuzkoan eta 68 Bizkaian, honela banatu zirelarik:

Gipuzkoa:

Aretxabaleta: 4; Arrasate: 13; Bergara: 10.

Bizkaia:

Derio: 5; Elorrio: 4; Erandio: 16; Galdakao: 11; Getxo: 18; Larrabetzu: 2; Lezama: 2; Sondika: 4; Zamudio: 3; Zeanuri: 2.

Kontrol-kanpaina honen bidez egiaztatu zen ikuskatutako taberna eta kafetegien %95ean modu egokian etiketatutako ardoa saltzen zela. Akatsak Aretxabaleta, Arrasate, Galdakao eta Erandion aurkitu ziren.

Etiketatu gabeko ardoa saltzen zuten establezimenduek legea ez ezagutzea edo banatzaileak ardoa etiketaturik banatu nahi ez izatea argudiatu zuten. Ondorengo bisita batean egiaztatu zen saltzen zen ardo guztia modu egokian etiketaturik zegoela.

ORDAINKETAREN ATZERAPENA ETA KONTSUMOARI KREDITUAK

Kontsumo ondasunak eskuratzeko finantzaketak hazkunde garrantzitsua bizi izan du azken urteotan, bai prezio altuko kontsumo ondasunak erosteko, bai zerbitzuak kontratatzeko. Egoera berri hau ordainketaren atzerapenaren eta kontsumoari kredituaren inguruko ikuskaritza kanpaina berri baten abiapuntua izan da. Hauek izan dira helburu nagusiak:

- Ondasunak eskuratzeko ordainketaren atzerapenaren eta kontsumoari kredituaren inguruko eskaintzen egoera ezagutzea.
- Halako ordainketa-moduak eskaintzen dituzten establezimenduak dagokien araudiarekin bat datozela egiaztatzea.
- Atzeratutako ordainketa, mailegua, kreditua etab., kreditu erakunde batek eman badu, eta establezimendu saltzailearen bitartekotzarekin lortu bada, informazio guztia eta dendak izan ditzakeen dokumentu guztiak biltzea.

Kanpaina hau 2003ko urrian egin zen, eta horretarako ikuskaritza bisitak egin ziren establezimenduetara kontsumo eta finantzaketa eragiketak nola egin diren egiaztatzearen. Guztira 63 establezimendu bisitatu ziren hiru lurraldeetan: 14 Araban, 21 Gipuzkoan eta 28 Bizkaian. Bisitatutako establezimenduak sektore ezberdinetakoak izan ziren, hala nola edergintza zentroak, etxetresna dendak, altzari dendak, edo ibilgailuen salerosketa-establezimenduak.

GABONETAKO GIRLANDEN SEGURTASUNA

Aurreko urteotan bezala, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzako Ikuskaritza Zerbitzuak gabonetako girlanden etiketatu, erabilera-ohar eta segurtasunaren inguruko ikuskaritza kanpaina egin zuen azaroan.

Kanpainaren helburua CE markatua aurkezten ez zuten girlanda guztiak merkatutik kentzea zen. Marka hau derrigorrezkoa da, produktuek segurtasun-kontrolak jasan dituztela adierazten baitu. Gainera, 2003an zehar estatu zein Europa mailako alerta-sareetan jarritako girlandak erretiratu ziren.

20 girlanda argidun erretiratu ziren CE marka ez eramateagatik. Guztira 460 unitate erretiratu ziren hiru lurraldeetan.

Establezimenduan 10 girlanda unitate suntsitu ziren CE marka ez izateagatik.

Alerta-sareetan sartutako 3 girlanda mota identifikatu ziren. Horietatik, merkatutik 14 unitate erretiratu ziren eta 32 suntsitu ziren.

CE markaz gain, artikulua hauek produktuaren arduradunaren izena adierazi behar dute, elikapen-tensioari buruzko argibideak (V), gehienezko potentzia (W), eta segurtasun-oharrak.

Datu hauek guztiak egiaztatzeko, 55 girlanda modelo ikuskatu ziren EAeko 30 establezimendutan, girlanden %77a modu egokian etiketaturik zeudela egiaztatuz.

Akatsik ohikoenak honako eskaeren ingurukoak ziren:

- Fabrikatzaileari buruzko adina informazio ez ematea, honen helbidea, produktuaren jatorria EBtik kanpoko bada, eta gehienezko potentzia (W).
- Derrigorrezko segurtasun-oharren artean honako informazioa ez adieraztea: lanpara akastunak tentsio eta potentzia bereko batzuekin ordezkatzeko gehiegizko berotzea ekiditeko; girlanda elikapen-sarera ez konektatzeko ontziratuta dagoen bitartean; girlandak euren artean elektrikoki ez konektatzeko horretarako prest ez badaude.

Honetaz gain, eta Aduana Sailarekin batera, merkaturatutako diren produktuak modu egokian etiketaturik egotea lortzeko asmoz zenbait jardura burutu ziren, beharrezko eskakizunak bete arte hauen merkaturatzea ekiditearren.

Produktuaren arduraduna kokatuta dagoen Autonomia Erkidegoei girlandetan aurkitutako akatsen inguruko informazioa komunikatu zitzaizkien, okerrak zuzen zitzaten.

JOSTAILUEN SEGURTASUNA

Aurreko urteotan bezala, azaroan Kontsumo Zuzendaritzak jostailuen salmenta-establezimenduak ikuskatzeko kanpaina burutu zuen: bazarrak, "dena ehunera" dendak, jostailu didaktikoen dendak eta azalera handiak.

Kanpainaren helburuak eta ekimen garrantzitsuenak hauek izan ziren:

- Aurkeztutako jostailu guztiek jostailuan bertan edo bilgarrian CE marka zutela egiaztatzea. Marka honek jostailuaren segurtasuna bermatzen duten segurtasun arauen arabera fabrikatua izan dela adierazten du, eta marka erakusten ez duten jostailu guztiak merkatutik erretiratu behar dira. Guztira CE marka ez izateagatik 5.790 unitate erretiratu ziren.
- Jostailuen etiketatuan fabrikatzailearen identifikazio-datuak eta jostailu mota bakoitzarentzako erabilera oharrak adierazten zirela egiaztatzea. Horretarako, EAEko saltokietako 200 jostailu ikuskatu ziren. Horiek guztiek CE marka aurkezten zuten, publikoarentzako salmenta-prezioa, fabrikatzaile edo arduradunaren izena eta helbidea, eta erabilera-oharrak hizkuntza ofizialean aurkitzen ziren.

Jostailu mota batzuek erabilera ohar bereziak eraman behar dituzte derrigorrez (jostailu kimikoak, elektrikoak...). Horietan jostailu funtzional direlakoetan bakarrik aurkitu ziren akatsak (jostailu funtzionalak helduentzako aparatuen funtzio bera betetzen duten jostailuak dira, baina eskala txikiagoan daude eginak). Funtzionalen %60ak ez zuten honako oharra erakusten: "Erne! Helduen begiradapean erabili"

- 2003an alertatutako jostailuak ikuskatzea. Alertatu zirenen antzekoak ziren bi jostailuren laginak hartu ziren laborategian aztertuak izateko.
- Zenbait jostailuren laginak hartzea saiakuntza bidez ezarritako segurtasun eskakizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko. 9 jostailu-modeloren laginak hartu ziren laborategian aztertuak izateko.

Kanpaina honen ondorioztat azpimarra genezake CE marka erakusten duten jostailuak modu egokian etiketaturik zeudela, jostailu funtzionalen kasuan izan ezik. Bestalde, azpimarratu behar da saltokietan oraindik posible dela CE markarik ez duen jostailurik aurkitzea.